

# ARKITEKTURA ETA DISEINUA
## ARCHITECTURE ET DESIGN

07

Peio Aguirre

BASQUE.

ETXEPARE
EUSKAL INSTITUTUA

## ARKITEKTURA ETA DISEINUA
ARCHITECTURE ET DESIGN



Peio Aguirre

BASQUE.

01
Euskara
Langue basque

02
Literatura
Littérature

03
Musika klasikoa
Musique classique

04
Euskal kantagintza: pop, rock, folk
La chanson basque : pop, rock, folk

05
Artea
Art

06
Zinema
Cinéma

**07**
**Arkitektura eta diseinua**
**Architecture et design**

08
Dantza
Danse

09
Bertsolaritza
Bertsolarisme

10
Tradizioak
Traditions

11
Sukaldaritza
Cuisine

12
Antzerkia
Théâtre

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralde komunak eta denbora-mugarri berberek zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugan jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoa piztea du helburu.

Cette collection crée par l'Institut basque Etxepare réunit douze disciplines culturelles. Elles sont toutes les maillons d'une même chaîne, car elles partagent la même langue, le même territoire, et la même histoire. À travers notre culture, nous vous invitons à être témoin de la fusion entre tradition et innovation, du mélange du local et de l'étranger dans le territoire de la langue basque. Nous vous invitons à découvrir d'où nous venons, où nous en sommes, et vers où nous allons. Cette collection est un point de départ destiné à éveiller votre curiosité et à susciter le désir de mieux connaître la culture basque.

# ARKITEKTURA ETA DISEINUA
## ARCHITECTURE ET DESIGN

Peio Aguirre

| | | |
|---|---|---|
| 09 | Sarrera | Introduction |
| 11 | **Arkitektura** | **Architecture** |
| 13 | Euskal Herriko arkitektura modernoaren hastapenak | Les débuts de l'architecture moderne au Pays basque |
| 19 | Arkitektura garaikidea Euskal Herrian | L'architecture contemporaine au Pays basque |
| 35 | **Diseinua** | **Design** |
| 37 | Diseinu industrialaren hastapenak eta aitzindariak | Origines et pionniers du design industriel |
| 41 | Diseinua gaur egun | Le design aujourd'hui |

**BASQUECULTURE.EUS**
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

Nola lortu du Europan bizirik dagoen hizkuntza zaharrenak berezko lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

Irene Larraza Aizpurua
ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUKO
ZUZENDARIA

Comment la langue vivante la plus ancienne d'Europe a-t-elle réussi à prendre sa place au XXIe siècle ? Qu'est-ce que la culture basque aujourd'hui, et qu'est-ce qui la distingue des autres cultures ? Quelle présence internationale mérite-t-elle ?

À travers les livres de cette collection, l'Institut basque Etxepare souhaite proposer des réponses, afin de tendre la main à d'autres cultures et identités. Car se connaître mutuellement est le seul moyen de nous apprécier et de nous comprendre. Ongi etorri.

Irene Larraza Aizpurua
DIRECTRICE DE
L'INSTITUT BASQUE ETXEPARE

# Sarrera

Arkitektura eta diseinua lurralde bateko kultura-ondarearen parte gisa hartuko badira, bi diziplina horiek bereizi eta zehaztu behar dira lehenbizi, eta kultura-artxiboaren barruan bakoitzak zer leku duen errepasatu behar da ondoren. Diseinatzaile zein arkitekto izateak lanbide baten, eta batzuetan gremio baten, parte izatea dakar berekin; hau da, praktika materialak dira, gizakiaren oinarrizko beharrak aintzat hartuz, horiei irtenbidea emango dieten erantzunak bilatzera bideratuta daudenak: etxebizitza eta objektuen mundua. Nonbait bizi izatea, janztea edo inguruko objektuekin harremanak izatea arkitekturak eta diseinuak bilatzen duten funtzioari zentzua ematea edo funtzio horren zirkulua ixtea dira.

Artista bati, idazle bati, koreografo bati edo zinemagile bati ez dio, hasiera batean behintzat, inork eskatzen bere produkzioak eta kontzeptu-sorkuntzak libreki eskaintzeko; haien aldean, diseinatzailea eta arkitektoa aurretik eman zaizkien funtzioari, zerbitzuari eta eskaerari lotu behar zaizkie. Ez dugu horrekin esan nahi, hala ere, arteak ez duenik bestelako funtzionalitaterik. Sarritan goraipatu izan dugu artistaren funtzioa, autoritate morala balitz legez; diseinatzaileari eta arkitektoari, baina, ez diegu batere erreparatu. Egungo abangoardiaren baitan, Jorge Oteizak (Orio, 1908-Donostia, 2003) ez zuen inolako altzaririk diseinatu, ezta eguneroko objekturik ere; izan ere, bilduegi zeukaten «altzari espiritualek». Néstor Basterretxea (Bermeo, 1924-Hondarribi, 2014) eskultore eta diseinatzaile industrialaren esku gelditu zen rol praktikoena. Izan ere, mahaiak, bulegoak, aulkiak, kanapeak, lanparak, tximiniak, edarialtzariak eta xake-taula bat diseinatu zituen.

Arteak emantzipazioan zeresan garrantzitsua izan dezala nahi duen gizarte ororen ezaugarria da diseinua eta arkitektura prozesu horren parte izan daitezela behar izatea. Argi dago Oteiza funtsezko figura bihurtu eta egungo arkitekto askoren inspirazio-iturri dela, nahiz eta arriskurik ere badagoen: teoria ezabatuta forma hutsean geratzea. Dudarik gabe, baina, Oteizaren dimentsio teorikoa bere eskultura-proiektuari esker igarotzen da arkitekturara. Ezin da zalantzan jarri bere eragin estetiko eta teorikoa.

Arteak darabilen bestelako logika ekonomikoa darabilte diseinuak eta arkitekturak; hasiera-hasieratik ageri dira bezeroa eta merkatua. Philip Johnson-ek eta Henry Russell-Hitchcok-ek erakusketa bat antolatu zuten 1932an, eta bertan kanonizatu zen «Nazioarteko estiloa» terminoa, Walter Gropius-en lehenagoko lan batetik hartuta egokitu zutena. «Arkitektura» eta «eraikinak» bereizi zituzten. Haien ustez, bene-benetako handienek –Le Corbusier, Mies van der Rohe eta Gropiusek berak– arkitektura egiten zuten; Estatu Batuetan, ostera, «eraikinak» egiten ziren (bistan denez, ez ziren «diseinatzen»). Behin eta berriz jarri zen auzitan bereizketa hori joan zen mendean (Tom Wolfe-ren gozamen-gai eta eztabaidagai izan zen *From Bauhaus to Our House* edo, euskaraz esanda, Bauhaus-etik gure etxera). Bada, bereizketa hori elementu-bereizle gisa erabil daiteke testu honetan bertan. Antzeko zerbait gertatzen da «diseinua» eta «objektuak» terminoekin. Ez nuke aditzera eman nahi diseinuaren eta arkitekturaren «artistifikazioak» dakarrenik praktika horiek kultura-esparruan sartzeko oinarria. Nabarmendu nahi nuke, ordea, inguruan ditugun objektu guztiak norbaitek pentsatu eta asmatu baditu, hots, neurri batean edo bestean diseinatu badira (gauza bera gertatzen da arkitekturan), gutxi batzuek baino ez dutela diseinuaren eta arkitekturaren estatusa lortzen.

Atalase hori markatzen duten ezaugarri izan daitezke, kasurako, sormena, berrikuntza formala zein teknikoa, nork bere burua ezbaian eta hausnarketagai jartzea, testuinguruarekiko eta inguruarekiko sentsibilitatea, diziplina horien historian txertatzeko modua edo gizarte-teoria aurreratuenen *vis-à-vis* garapen-maila edo berezitasuna. Horrela, auzi horiek baremo gisa hartuta erkatu dira lan honetan bildutakoak. Izan ere, denboraren joanak eta historiak autoreen eta sortzaileen arteko hautaketa egiten dute; baina diseinuaren eta arkitekturaren berehalako errealitateak (milaka dira azken diziplina horretan lan egiten duten profesional kolegiatuak) zaildu egiten du lan hori.



# Introduction

Faire référence à l'architecture et au design en tant qu'élément de l'héritage culturel d'un territoire implique, tout d'abord, de distinguer et de définir les deux disciplines, ainsi que d'établir un bref rappel de la place que chacune occupe au sein de l'archive culturel. Être designer ou architecte, c'est faire partie d'un métier, souvent d'une corporation ; il s'agit de pratiques matérielles visant à trouver des solutions répondant aux besoins fondamentaux de l'être humain : le logement et les objets. Habiter quelque part, se vêtir, être en relation avec les objets qui nous entourent, c'est donner un sens à la fonction recherchée par l'architecture et le design, ou revenir au point de départ de cette fonction.

On ne demande pas à un artiste, un écrivain, un chorégraphe ou un réalisateur, du moins en première instance, de faire don de leurs productions ou de leurs créations ; le designer et l'architecte, quant à eux, se doivent d'accomplir une fonction, une commande ou un service demandé en amont. Toutefois, nous ne disons pas là que l'art n'a pas d'autres fonctionnalités. La fonction de l'artiste est couramment louée comme autorité morale, alors que le designer et l'architecte sont peu considérés. Au sein de l'avant-garde basque, Jorge Oteiza (1908-2003) n'a pas conçu de mobilier ni d'objets du quotidien, trop absorbé qu'il était par les « meubles spirituels ». Le rôle le plus pratique revint à Néstor Basterretxea (1924-2014), sculpteur et designer industriel. Il conçut des tables, des bureaux, des chaises, des canapés, des lampes, des cheminées, des bars, et même un jeu d'échecs.

Toute société qui aspire à ce que l'art ait un rôle déterminant dans son émancipation se caractérise par le souhait que le design et l'architecture fassent partie de ce processus. Oteiza est devenue une figure incontournable et une source d'inspiration pour de nombreux architectes actuels, au risque même d'éliminer la théorie et de ne conserver que la forme. Sans aucun doute, la dimension théorique d'Oteiza s'étend à l'architecture par le biais de sa sculpture. Son influence esthétique et théorique est incontestable.

La logique économique du design et de l'architecture est distincte de celle de l'art, puisque le client et le marché sont présents dès le début. Philip Johnson et Henry Russell-Hitchcok organisèrent en 1932 une exposition qui canonisa le terme de « Style international », adapté d'un travail antérieur de Walter Gropius. Ils dissocièrent « l'architecture » et « les bâtiments ». D'après eux, les plus grands qu'étaient Le Corbusier, Mies van der Rohe et Gropius lui-même, faisaient de l'architecture quand aux États-Unis on construisait des « bâtiments » (ils n'étaient évidemment pas construits d'après un « design »). Cette distinction, qui fut remise en cause tout au long du siècle dernier (qui fit les délices de Tom Wolfe dans son essai acerbe *Il court, il court le Bauhaus : Essai sur la colonisation de l'architecture*), peut être utilisée dans le présent texte comme élément de différenciation. On pourrait dire de même des termes « design » et « objets ». Je ne veux pas dire qu'une « artistisation » du design et de l'architecture est la base pour que certaines de ces pratiques s'inscrivent dans le domaine culturel. Cependant, je tiens à souligner que si tous les objets qui nous entourent ont été pensés et inventés par quelqu'un, donc, plus ou moins dessinés (il en va de même pour l'architecture), seuls quelques-uns parviennent à obtenir un statut de design et d'architecture.

Certains traits qui marquent ce seuil pourraient être la créativité, l'innovation formelle et technique, l'auto-questionnement et l'auto-reflexibilité, la sensibilité au contexte et à l'environnement, la manière de s'inscrire dans l'histoire de ces disciplines ou le degré de développement ou la singularité par rapport aux théories sociales les plus avancées. Ainsi, les sujets abordés dans le présent ouvrage ont été recueillis en appliquant certaines d'entre eux comme mesure. En effet, le passage du temps et l'histoire produisent leur propre sélection entre auteurs et créateurs, mais la réalité immédiate du design et de l'architecture (cet ordre professionnel rassemble des milliers de membres) complique cette tâche.

# ARKITEKTURA

# ARCHITECTURE

# Euskal Herriko arkitektura modernoaren hastapenak



1. Klub Nautikoa, José Manuel Aizpurua eta Joaquín Labayen. Donostia, 1929.
2. La Equitativa, Fernando Arzadun. Donostia, 1933.

Oraina argitzen duten iraganeko figuraz beterik dago arkitektura: gaur egungo arkitekturaz aritzeak Mugimendu Modernoaren hastapenetara atzera egin beharra dakar. José Manuel Aizpurua (Donostia, 1902-1936) euskal mugimendu arrazionalistaren aitzindarietako bat izan zen, GATEPAC taldearen (Arkitektura Garaikidearen Garapenerako Artista eta Teknikari Espainiarren Taldea) sortzaileetako bat. 1930ean sortu zen GATEPAC, Zaragozan; taldearen helburua arkitektura modernoa lantzea zen, eta profesioaren etorkizunean funtsezkoa izan zen arrazionalismo modernoaren tesietatik hurbil zebilen lehenengo taldetzat jotzen da. Aizpuruaren eta Joaquín Labayen tolosarraren Donostiako Klub Nautikoak (1928-1929) erabateko etena ezarri zuen garai hartako arkitekturan. Baina, Aizpurua gazte zendu zela eta, 36ko gerraren hasieran, bat-batean gelditu zen balizko etorkizun handiko bere nazioarteko karrera. Aizpurua eta Labayen donostiar abangoardia baten erpin izan ziren, eta horren adibide da GU Artisten Sozietate izatera iritsi zena: egin zuten lana euskal arkitektura arrazionalista eta modernoaren gailurra da oraindik ere.

Mugimendu modernoak beste ordezkari loriatsu batzuk ere izan zituen, hala nola Luis Vallejo (Bilbo, 1901-Getxo, 1964), Bizkaian, eta haren zenbait garaikide; esaterako Fernando Arzadun (Bermeo, 1893-Madril, 1951). Arzadun arrazionalismoaren ordezkari garrantzitsua izan zen, nahiz eta aurreragoko bilakaerak espresionismoari loturikoak ziren joeretara eraman zuen. Haren lana Euskal Herrian eta Madrilen dago bilduta. Harena da, esaterako, Kikunbera etxea (bere jaioterrian, Bermeon, dago). Itsasontzi-eraikinen tankerakoa da hori ere (Aizpuruaren eta Labayenen Klub Nautikoa den legez). 1930ean burutu zuen arkitektoak, gurasoen etxebizitza izateko. Donostiako





# Les débuts de l'architecture moderne au Pays basque

1. Le club nautique, José Manuel Aizpurúa et Joaquín Labayen. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 1929.
2. La Equitativa, Fernando Arzadún. Saint-Sébastien, 1933.

L'architecture a un passé plein de personnes illustres qui éclairent le présent : évoquer l'architecture actuelle suppose de revenir aux débuts du Mouvement moderne. José Manuel Aizpurúa (1902-1936) fut l'un des précurseurs du mouvement rationaliste basque, et l'un des fondateurs du groupe GATEPAC (Groupe d'artistes et techniciens espagnols pour le progrès de l'architecture contemporaine). Ce groupe fut crée à Saragosse en 1930 ; il défendait le développement de l'architecture moderne et il est considéré comme le premier mouvement proche des thèses du rationalisme moderne qui se révéla fondamental pour l'avenir de la profession. Le Club royale nautique de Saint-Sébastien (1928-1929) d'Aizpurúa et de Joaquín Labayen de Tolosa (Guipuscoa) marqua une rupture définitive dans l'architecture de l'époque. Cependant, la mort prématurée d'Aizpurúa en 1936, au début de la guerre civile espagnole mit un terme à ce qui aurait pu devenir une carrière internationale prometteuse. Aizpurúa et Labayen furent le sommet de l'avant-garde de Saint-Sébastien, preuve en est ce qu'est devenu la Société des artistes GU : le travail qu'ils y ont réalisé est toujours considéré comme de la plus haute importance dans l'architecture basque rationaliste et moderne.




Le mouvement moderne eut d'autres glorieux représentants tels que Luis Vallejo (1901-1964) en Biscaye, et d'autres de ses contemporains comme Fernando Arzadún (1893-1951). Arzadún fut un représentant important du rationalisme, bien qu'il évolua plus tard vers des tendances expressionnistes. Son travail se concentre au Pays basque et à Madrid. La maison Kikunbera dans sa ville natale de Bermeo (Biscaye) est de lui. Cet édifice, tout comme le Club nautique d'Aizpurúa et Labayen, a l'allure d'un navire. L'architecte le réalisa en 1930, comme logement pour ses parents. D'autres bâtiments comme La Equitativa de Saint-Sébastien (1930-1933) ont laissé une empreinte indélébile dans l'architecture de l'époque. L'architecture moderne de l'époque ne sortit pas de nulle part ; en effet, en plus de s'être nourri de la contagion

La Equitativa (1930-1933) eraikinaren gisako beste eraikin batzuek ere arrasto ezabaezina utzi zuten sasoi hartako arkitekturan. Garai hartako arkitektura modernoa ez zen hutsetik sortu; izan ere, Le Corbusierren eta Mies van der Roheren nazioarteko kutsatze horretatik edateaz gainera, estilismo modernista baitzegoen testuinguru haren oinarrian. Horrekin batera, XIX. mende bukaeran sortutako estilo neo-erregionala edo *neovasco* zeritzona bizikide ziren.

Mende aldaketarekin batera, landako herri-arkitektura erreferentzia bihurtu zen tokian tokikoaren berpizkunderako. XX. mende hasierako arkitekturan oso agerikoa izan zen euskal estilo hori, hein batean, estilo berankorra izan zen; izan ere, tarte batez eklektizismoaren eta mugimendu arrazionalistaren arteko trantsizioan gertatu zen. Estilo hori arrazionalismoa martxan zela agertu zen, hurbilen zuen erreferentea (modernismo kataluniarra) baino hamarkada batzuk geroago.

Konfigurazio horren baitan, modernitatearekin lotutako beste pertsonaia garrantzitsu bat Florencio Mokoroa izan zen; Tolosan jaio zen 1903an, eta egunerokoaren arkitektotzat har daiteke. Haren lanik nabarmenenak 1930eko hamarkadakoak dira; sasoi hartan artista nagusi zen Nikolas Lekuonarekin (Oteizaren lagun-mina, bai eta Aizpurua arkitektoarena ere) ibili zen estuki lanean. Mokoroaren lanen artean, azpimarratzekoak dira Hornitegidun Eraikina (1935) eta Ezkongabeen etxea (1936), biak ere Donostian. Bigarren eraikinaren barruan tamaina txikiko pisuak zeuden, eta hortik hartu zuen izena.

Abangoardiako arkitektoen bigarren belaunaldiko kide garrantzitsuenetako bat Luis Peña Ganchegui da (Oñati, 1926-2009); lan askogatik da ezagun, Eduardo Chillida eskultorearen *Haizearen Orrazia* (Donostia, 1976) delakoaren alderdi arkitektonikoagatik barne, baita Trinitate plazarenagatik

**3.** *Haizearen Orrazia,* Eduardo Chillida eta Luis Peña Ganchegui. Donostia, 1976.
**4.** Arantzazuko basilika, Javier Sáenz de Oiza eta Luis Laorga. Oñati, 1950.



3

**3.** *Le Peigne du vent,* Eduardo Chillida et Luis Peña Ganchegui. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 1976.
**4.** La basilique d'Arantzazu, Javier Sáenz de Oiza et Luis Laorga. Oñati (Guipuscoa), 1950.



4



internationale de figures telles que Le Corbusier et Mies van der Rohe, elle s'établissait dans un contexte où l'existence d'un style moderne coexistait avec le style néo-régional ou néo-basque de la fin du XIXe siècle.

Au tournant du siècle, l'architecture populaire rurale devint le modèle de référence pour la renaissance vernaculaire (ou provenant du territoire). Ce style néo-basque, très présent dans l'architecture du début du XXe siècle, a été, en quelque sorte, un style tardif car il se situe dans la transition entre l'éclectisme et le mouvement rationaliste. Ce style apparut alors que le rationalisme avait déjà débuté, et plusieurs décennies après son référent le plus immédiat : le modernisme catalan.

Une autre figure de la modernité a été Florencio Mocoroa, né à Tolosa (Guipuscoa) en 1903, qui peut être considéré comme l'architecte du quotidien. Ses œuvres les plus remarquables sont celles des années 1930, une époque où il collabora avec Nicolás Lekuona, ami intime d'Oteiza et de l'architecte Aizpurúa. Parmi les œuvres de Mocoroa figurent le Bâtiment avec station service (1935) et la Maison des célibataires (1936), toutes deux à Saint-Sébastien. Ce dernier porte ce nom à cause des tout petits appartements qu'il abrite.

L'un des membres les plus importants de la deuxième génération d'architectes d'avant-garde est Luis Peña Ganchegui (1926-2009), connu pour de nombreuses créations, dont la partie architecturale du *Peigne du Vent* (Saint-Sébastien, 1976) du sculpteur Eduardo Chillida, ainsi que pour la place de la Trinité dans la même ville. Il n'a pas crée d'œuvres monumentales, mais des œuvres pleines de subtilité qui allient sa sensibilité à l'environnement et son style personnel qui pouvait être très proche de la sculpture. Ganchegui faisait attention à ce que ses œuvres, en plus d'un corps, aient aussi une âme. Architecte audacieux quant aux matériaux qu'il utilise et innovateur dans sa technique, il est également connu pour la tour Alegre de Zarautz (Guipuscoa) et la place des Fors de Vitoria-Gasteiz.

Une autre figure de cette génération fut Francisco Javier Sáenz de Oiza (1918-2000), en avance sur son temps, avec des œuvres discutées mais qui finirent pas devenir des symboles, comme les tours blanches de Madrid (construites dans les années 1970). De Oiza se distingue par sa grande

ere. Ez zuen obra ikusgarri handirik egin, baina bai sotiltasunez beteriko obrak, inguruarekiko sentiberatasuna eta bere estiloa batzen zituztenak, eskulturatik oso hurbil zeudenak batzuetan. Arduratsu jokatu zuen Gancheguik, bere obrek gorputzaz gain arima ere izan zezaten. Arkitekto ausarta materialei dagokienez, eta berritzailea tekniketan; bere lanen artean ezagunak dira, baita ere, Zarauzko Vista Alegre dorrea eta Gasteizko Foruen enparantza.

Belaunaldi horretako beste erreferenteetako bat Francisco Javier Sáenz de Oiza (Kaseda, 1918-Madril, 2000) izan zen, bere sasoirako aurreratua. Eztabaida handiak izan ziren haren obren inguruan, baina sinbolo izatera ere iritsi ziren; esaterako, Madrileko Dorre Zuriak (1970eko hamarkadan eraikitakoak). Oizarengan zeharo nabarmentzen dira hala nazioarteko ideia garaikideekin lortutako sintesia, nola Oteizarekin izandako lan-harreman estua. Harreman horren fruituak gerora nabarmendu ziren gehiago, Nafarroako Altzuza herrian Oteiza Fundazioa diseinatu zenean; izan ere, eraikin berezia da hura, egundoko sendotasuna duena. Bidean geratu ziren beste zenbait proiektu ere aipatzeko modukoak dira; adibidez, Bilboko Alhóndigaren proiektua (Oteiza eta Juan Daniel Fullaondo arkitekto entzutetsuarekin batera).

Hala ere, dudarik gabe, Oizaren lanen artean euskal arkitekturan ezinbesteko eraikin bihurtu dena Arantzazuko santutegiko basilika da (Oñati). 1950eko hamarkadan burutu zuen (Luis Laorgarekin elkarlanean). Hura izan zen modernitatea eliza katolikoan sartu zen lehenengo aldietako bat, eta hainbat istilu sortu ziren Elizarekin. Arantzazuko lana euskal artearen eta arkitekturaren sorlekutzat jo behar litzateke, erreserba estetiko bat balitz legez, non «santutegi» nozioa eta modernitatearen ideario mitikoa uztartzen baitira. Nukleo intelektual horretako beste kide bat lehenago ere aipatu dugun Fullaondo (Bilbo, 1936-Madril, 1994) izan zen; arkitekto izateaz gain, artearen eta arkitekturaren arloko kritikari eta teorikorik argienetako bat ere izan zen. *Nueva Forma* (Madril) aldizkariaren zuzendaria izan zen, 1967an sortu zenetik 1975ean argitaratu zen azken zenbakira arte. Fullaondok batu egin zituen arkitektura eta diseinua, eta mugimendu moderno handien (Bauhaus eta De Stijl, adibidez) utopia hurreratu zigun, Oteizaren eta Chillidaren lanetan sakontzeaz gainera.

Aurrekoek garaikide izan zuten, halaber, Rufino Basáñez arkitektoa (Bilbo, 1929-1991), etxebizitza sozialaren esparruan berritzailea. Basáñezek hainbat eraikin eta ekipamendu egin zituen. Horietako bat da San Inazio eta Deustuko etxebizitzen proiektua, Bilbon (Julián Larrearekin eta Esteban Argaraterekin batera), zeina Le Corbusierren «bizitze-unitatea» praktikan ipintzeko saiakera bat izan baitzen. Basáñezek Otxarkoaga Herrixka proiektuaren garapenean parte hartu zuen. 1959an 534 etxebizitza eraikitzeko proiektua egin zen. Etxebizitza sozialez gainera, eskola eta fabrika leku aproposak izan ziren XX. mendeko arkitektura industrialean esperimentatzeko; halaxe ordeztu zen ordura arteko *neovasco* izeneko estiloa, zeina mende hasieratik burgesiaren loria handiena ziren etxebizitza bakarreko etxeetan kontzentraturik baitzegoen.

**5.** Oteiza Museoa, Francisco Javier Sáenz de Oiza. Altzuza, 2003.






5

**5.** Musée Oteiza, Francisco Javier Sáenz de Oiza. Altzuza (Navarre), 2003.

fa- culté de synthèse avec les œuvres contemporaines et également par l'étroite collaboration avec Oteiza. Cette collaboration porta ses fruits plus tard, lorsqu'on dessina la Fondation Oteiza à Altzuza (Navarre), qui est un édifice singulier, d'une solidité formidable. D'autres projets qui restèrent en suspens sont également remarquables, comme le projet Alhóndiga de Bilbao (avec Oteiza et le célèbre architecte Juan Daniel Fullaondo).

Cependant, Oiza fut à l'origine d'une autre œuvre essentielle au sein de l'histoire de l'architecture basque : la basilique du sanctuaire d'Arantzazu (Oñati, Guipuscoa), achevée dans les années 1950 (en collaboration avec Luis Laorga). Ce fut une des premières fois que la modernité entrait dans l'Église catholique, ce qui provoqua biens de conflits avec l'Église. L'œuvre d'Arantzazu doit être considéré comme le berceau de l'art et de l'architecture basque, une réserve esthétique où la notion même de « sanctuaire » et l'idéologie mythique de la modernité ne font qu'un. Un autre membre de ce noyau intellectuel fut Fullaondo (1936-1994), déjà cité plus haut, qui, en plus d'être architecte, était l'un des critiques et théoriciens d'art et d'architecture les plus brillants. Il dirigea la revue *Nueva Forma* (Madrid) depuis ses débuts en 1976 jusqu'au dernier numéro paru en 1975. Fullaondo réunit l'art, l'architecture et le design, et rapprocha un peu plus l'utopie des grands mouvements modernes (Bauhaus et De Stijl, par exemple), en plus d'approfondir les travaux d'Oteiza et de Chillida.

Un autre architecte contemporain des architectes cités plus haut fut Rufino Basáñez (1929- 1991), novateur dans le domaine du logement social. Basáñez réalisa de nombreux bâtiments et installations parmi lesquels les logements San Inazio et de Deusto à Bilbao (en collaboration avec Julián Larrea et Esteban Argárate), qui fut une tentative de mise en pratique de *l'unité d'habitation* de Le Corbusier. Basáñez participa au développement du projet du village Otxarkoagoa (Bilbao), pour réaliser un ensemble de 534 logements (1959). Outre les logements sociaux, les écoles et les usines furent également des espaces d'expérimentation pour l'architecture de style industriel du XXe siècle. Celui-ci supplanta le style néo-basque du début du siècle qui se concentrait dans les maisons individuelles, gloire de la bourgeoisie.



# Arkitektura garaikidea Euskal Herrian

6. Kursaal, Rafael Moneo. Donostia, 1999.
7. Guggenheim Museoa, Frank O. Gehry. Bilbo, 1997.

Komunikabideen eragina tarteko, puri-purian den nazioartekotasuna dute ezaugarri egungo arkitektoek. Eta, era berean, XX. mendeko arkitektura modernoa *lingua franca* bihurtu dela ziurta daiteke. Rafael Moneo (Tutera, 1937) figura nabarmena da; izan ere, ate-orpo modukoa da, zirriborratu dugun lehenaldiaren eta gaur egungo praktiken artean dantzan dabilena. Moneo nazioarteko ibilbidea duen arkitekto aitortua da, obra garrantzitsuak egin izan dituena eraikuntzaren esparruan. Hala ere, arazo bat sortzen da gaur egungo arkitekturan, arkitektoa autore eta sortzaile dela aitortzea, alegia. Orokorrean, arkitektoaren autore-onarpena helduaro berankorrean gertatzen da. Dena den, gure inguruetara begiratuz gero, badirudi ez dagoela izen handiko autore gehiago. Autore-arkitekturaren eta «aurpegi gabeko» arkitektoaren (edo gizartean kamuflaturikoaren) arteko anbibalentzia gaur egungo egoeraren bereizgarrietako bat da. Baina arkitekturaren historia «izenen» bidez (denak ere gizonezkoenak) osatuz joan da; eta ez sigla edo estudio-marken bidez (Rem Koolhaas-en OMA Office for Metropolitan Architecture edo Hiri Arkitekturarako Bulegoa da, agian, salbuespena).

ACXT estudioa edo enpresa adibide berezia izan da horri dagokionez. Mundu osoan zehar banatuta dauden ehunka langile dituen arkitektura-enpresa handietako bat da. Madrilen sortu zen arren, euskal hastapen bat ere badu: sortzaileetako bat, Jesús Susperregi, IDOM ingeniaritza-enpresa handiko kide izana baitzen. IDOM enpresa arduratu zen Bilboko Guggenheim Museoa eraikitzeaz. Hain zuzen ere, IDOMen arkitektura arloa





# L'architecture contemporaine au Pays basque

6. Kursaal, Rafael Moneo. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 1999.
7. Musée Guggenheim, Frank O. Gehry. Bilbao (Biscaye), 1997.

Tout comme l'architecture moderne devint au XXe siècle une sorte de lingua franca, on peut affirmer que les architectes d'aujourd'hui participent à une internationalité en vogue grâce à une large portée médiatique. Une figure comme celle de Rafael Moneo (Navarre, 1937) est incontestable dans la mesure où elle est une figure charnière entre le passé que nous venons d'esquisser plus haut, et les pratiques les plus contemporaines. Moneo est un architecte renommé à la carrière internationale, qui a réalisé des constructions importantes. Toutefois, sa figure pose problème dans l'architecture actuelle, par rapport à la reconnaissance de l'architecte en tant qu'auteur et créateur. Généralement, un architecte commence à être reconnu comme auteur à partir d'une certaine maturité. Cependant, il semblerait qu'autour de nous il n'y ait pas d'autres auteurs de renom. L'ambivalence entre une architecture d'auteur et l'architecture « sans visage » (ou dissimulé dans la société), est l'une des caractéristiques de la situation actuelle. Mais l'histoire de l'architecture s'est formée à partir de « noms » (tous masculins), et non de sigles ou de marques de studios (le OMA Office for Metropolitan Architecture de Rem Koolhaas est sans doute une exception).

Le studio ou l'entreprise ACXT en est un exemple particulier. C'est l'une des grandes entreprises d'architecture qui a des centaines d'employés partout dans le monde. Bien qu'elle a été fondée à Madrid, elle a une genèse basque,



edo adarra da ACXT. Azken hori Bilbon sortu zen, 1957an, eta munduko ingeniaritza-konpainiarik indartsuenetako bat izateaz harro egon daiteke. Susperregiren ustez, ingeniaritzaren zentzu instrumentala da arkitektoen ideiak posible egiten dituena, bai eta arkitektura aldatzen ari dena ere. Haren lema hauxe da: «taldeko lanaren aroan bizi gara». ACXT (ez dira siglak, baizik eta elkartea sortu zenean merkataritza-erregistroan hartu gabe zeuden lau hizkiak) arkitekto bati ingeniaritzak eskaintzen dizkion muga estuentzako irtenbide gisa aurkeztu zen. ACXT kolpean ezarri zen posizio kritiko bikoitzean ingeniaritzaren determinismoaren nagusitasunari dagokionez; gainera, autorearen arkitektura «intelektual» deritzon horretatik urrundu zen. Hala, arkitektura pragmatikorako joera agertu zuen, era berean, arkitektura «teknikotik» edo «baliagarritik» bereizten dena.

Deslokalizazioak –orotariko diziplinetan hezitako agenteak eta bulegoak hiri ezberdinetan barreiatuta izatea– osagai liberal eta merkantil moduko bat gehitzen dio markari. «Uste dugu arkitektoak orkestra-zuzendari lanak egiten zituen garaiak joanak direla jadanik. Proiektu baten autoretza konpartitu egiten da gaur egun. Arkitekto ahalguztiduna desagertzear dago», dio Susperregik. Miribillako Kirol Jauregiak ACXTren sinadura darama; eraikina arkitektura bereziaren adibide da, apropos-apropos jadanik arkitekto-izar baten abalik behar ez dela ikus dezagun. Gatzik gabea izan gabe, egungo ordenari jarraitzen dion arkitektura da, eta erradikaltasuna eta ausardia ez daude derrigorrez loturik pentsamendu edo figura intelektual indartsu bati (Rem Koolhaasen estilokoa). Ematen du arkitekto moderno eta posmoderno handien arkitektura eta teoriak (munduko arkitekturan azken hamarkadotan izan diren beste figura batzuenaz gainera, Herzog & de Meuron eta beste) arkitektura-eskola guztietako ikasleengan barneratu direla behin betiko.

Mapa kontraesankor bat planteatzen du eskala handiko arkitektura horrek: alde batetik, politikariek nazioarteko enpresa entzutetsuak erakarri nahi dituzte, arkitektura ikonikoaren ordezkari gisa (Frank Gehryren Guggenheim Museoaren eta Norman Fosterren, Arata Isozakiren edo Zaha Hadiden bestelako eraikuntza batzuen estiloan); beste alde batetik, bertoko arkitektoak gai dira berritasunez betetako egiturak proiektatzeko eta eraikitzeko, uzten bazaie, bederen. Hortaz, badirudi muga teknikoa dela: formen erradikaltasunaren unibertsalizazioa segurutzat jotzen denean, arkitekturaren existentzia markatzen duen muga politikoa (uler dadila ekonomikoa) edo teknikoa (uler dadila hemen ingeniaritza) da. Bien konbinazioa ere posible da. Hala, orainaldia eta etorkizun hurbila ACXT, IDOM eta

**8**. Miribilla Kirol Jauregia, ACXT. Bilbo, 2010.
**9**. Isozaki Atea, Arata Isozaki. Bilbo, 2008. Zubizuri, Santiago Calatrava. Bilbo, 1997.


8

**8**. Le palais des sports de Miribilla, ACXT. Bilbao (Biscaye), 2010.
**9**. La porte Isozaki, Arata Isozaki. Bilbao, 2008. Zubizuri (Le pont blanc), Santiago Calatrava. Bilbao, 1997.


9

puisque l'un de ses fondateurs, Jesús Susperregui, appartenait à la grande entreprise d'ingénierie IDOM, qui eut en charge la construction du Musée Guggenheim de Bilbao. ACXT est une branche d'IDOM. Ce dernier a été fondé à Bilbao en 1957, et il peut se vanter d'être l'une des sociétés d'ingénierie les plus puissantes au monde. Selon Susperregui, c'est le sens instrumental de l'ingénierie qui rend possible les idées des architectes, et qui fait changer l'architecture. Sa devise est : « nous vivons au temps du travail en équipe ». ACXT (ce n'est pas un sigle, mais les quatre lettres qui étaient libres au registre du commerce lors de la fondation de la société), a été présenté comme une issue pour l'architecte dont l'ingénierie propose des limites étroites. ACXT se plaça dans une double position critique quant à la suprématie du déterminisme de l'ingénierie, et en même temps, il s'éloigna de l'architecture « intellectuelle » de l'auteur. C'est donc une tendance à l'architecture pragmatique, qui se distingue de l'architecture « technique » et « utilitaire ».

antzeko bestelako enpresa handien esku dago: haiek dira hiria modelatzen duten eraikuntza-maisu berriak; izan ere, espektakularizazioa (agintariek hain gustuko dutena) eta teknika, bi-biak biltzen dituzte. Hala, San Mames Barria futbol-zelaia ACXTk eraiki du; izugarrizko fatxada gardena du, beiraz eta metalez egindakoa, itsasadarretik ere ikus daitekeena. Harmailak hiru eraztunen gainean kokatuta daude, eta forma obalatu organikoa du, Herzog & de Meuronen Municheko Allianz Arena edo Pekingo Estadio Olinpikoa gogora ekartzen dituena.

ACXTren proiektua Norman Fosterrek edo Santiago Calatravak sinatutakoen aurretik aukeratu zuten, nahiz eta bi horiek Bilborekin erlazionaturiko historia duten. Lehena, Bilboko metroaren egile entzutetsua, Arte Ederren Museoa berritu eta handitzeko itzuli da hirira. Proiektuaren xedea beste solairu bat eraikitzea da, eraikin neoklasikoaren gainean irtena; horren bidez, museoaren edukitzailea bera izango da erakargarria. Gainera, gorago aipatu dugun aukeratzeko behar hori, nazioarteko enpresa baten arkitekturaren eta tokiko arkitektura baten arteko hautu hori, bateratu egiten da hemen; izan ere, Foster estudioa Laudioko arkitekto Luis María Uriarterekin lankidetzan arituko da. «Makina erraldoi bateko atal ñimiñoa naiz», esan du hark, lanbideak egun duen egoeraren laburpen gisa.

Gauza jakina da arkitektura mediatizazioaren mende dagoela. Hala eraikinak, nola haien arkitektoak modernitatearen ikono bihurtu dira. Modernitate horren baitan, irudia gai da langintzaren oinarrietako batzuen araberako kategoriak (funtzionalitatea, pragmatismoa, malgutasuna, ingurunea eta iraunkortasuna, programa asko eta askoren funtsezko kontzeptuak) aldatzeko. Gaur egungo euskal arkitektura garaikideak borrokatu, hots, lehiatu, egin behar du arkitekto ikonikoen (edo sinbolikoen) modernizazio-promesarekin. Orain bertan ez dago arkitekto «gazteek» osatutako estudio batek diseinatutako eta eraikitako arkitektura-eraikuntzarik arkitektura mediatikoaren sonaren mailara iritsi denik, hau da, promozio turistikorako orrialdeak betetzen dituen kapital sinboliko gisa hartu denik. Salbuespen gisa aipa genezake azken hamarkadan VAUMM kolektiboak izan duen arrakasta; kolektibo hori Marta Álvarez, Iñigo García Odiaga, Jon Muniategiandikoetxea, Javier Ubillos eta Tomás Valencianok osatzen dute. Basque Culinary Center-ek eraikina inguratzen duen arrapala bat dauka, Frank Lloyd Wright-en ondorengo helize-forma ematen diona; hori inflexio-puntu izan zen estudioarentzat. VAUMMek, bestalde, Donostiako portuko arrain-merkatuaren erreforma egin zuen, bai eta azken aldiko euskal arkitekturaren berritzearen buru izatera eraman duen beste zenbait esku-hartze ere.

Bere sasoian, herritarrak sutsuki agertu ziren Rafael Moneoren Kursaal Kongresu Jauregiaren kontra; gaur egun, ordea, Donostiako ikonoetako bat da, dudarik gabe, tokiko arkitektura ikoniko edo mediatikoaren adibide izan daitekeena. Moneo ospe handiko arkitektoa da, eta eraikin enblematikoak ditu beste herrialde batzuetan, Stockholmeko Moderna Museet edo Arte Modernoko Museoa, Suedian, adibidez. Moneoren beste eraikin bat Iesu eliza da, Donostiako Loiolako Erriberak auzoan. Obra minimalista da, argiaren mistizismoa eta sinpletasun tipikoki erredukzionista duen hormen zuria birlotzen dituena. Gurutze hautsi formako oinak eta asimetrikoa izateak munduko tentsioen isla izan nahi dute. Sabaiak airetiko efektua sortzen du, gurutzearen asimetria errepikatuz; hala, badirudi airean esekita dagoela. Eliza hori gure kultura-ondarean sar liteke, Arantzazuko Basilika edo Miguel Fisac-en Koroatzearen Elizarekin (Gasteiz, 1960) batera.

Dena den, balio estetikoa duten eraikinak egitea alde batera utzita, euskal arkitektura hiria egiteko moduak baldintzatzen du. Bilboko Gu-

**10.** Basque Culinary Center, VAUMM. Donostia, 2009.





La délocalisation, avec des bureaux et des agents formés à différentes disciplines et dispersés dans différentes villes, ajoute une composante libérale et commerciale. « Il nous semble que l'époque où l'architecte jouait le rôle de chef d'orchestre est révolue. Aujourd'hui la titularité d'un projet est partagée. L'architecte omnipotent est en passe de disparaître », dit Susperregui. Le palais des sports de Miribilla à Bilbao, porte la signature d'ACXT et est un bel exemple d'architecture singulière, qui n'a plus besoin de l'aval d'un architecte star. C'est une architecture, qui, sans être anodine, suit l'ordre actuel, où le radicalisme et l'audace ne sont plus nécessairement liés à une pensée ou identité intellectuelle forte (à la manière de Rem Koolhaas). Il semblerait que l'architecture et la théorie des grands architectes modernes et postmodernes (outre d'autres figures de l'architecture mondiale des dernières décennies, Herzog & de Meuron, etc.), se sont définitivement saisi des étudiants de toutes les écoles d'architecture.

Cette architecture à grande échelle présente un tableau contradictoire. D'une part, les politiciens veulent attirer de grandes entreprises internationales comme représentants d'une architecture iconique, dans le style du Musée Guggenheim de Frank Gehry et d'autres constructions de Norman Foster, Arata Isozaki ou Zaha Hadid. D'autre part, les architectes locaux sont capables de projeter et de construire de nouvelles structures tant qu'on leur en laisse l'opportunité. Il semblerait que la limite soit donc technique : une fois que l'universalisation de la radicalité des formes est tenu pour acquis, la frontière qui marque l'existence de l'architecture est soit politique (c'est-à-dire économique), soit technique (c'est-à-dire relatif à l'ingénierie). La combinaison des deux est également possible. Ainsi, le présent et le futur proche appartiennent à des grands groupes comme ACXT et IDOM. Ce sont les nouveaux maîtres d'œuvres qui modèlent la ville, et allient spectacularisation (si apprécié des dirigeants) et technique. Ainsi, ACXT a construit le stade de football de San Mamés, avec une façade transparente spectaculaire en verre et en métal, visible depuis la ria. Les tribunes reposent sur trois anneaux et ont une forme ovale organique rappelant l'Allianz Arena de Munich ou le stade olympique de Pékin de Herzog & de Meuron.

**10.** Basque Culinary Center, VAUMM. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 2009.



10

ggenheim Museoarekin zabaldutako aukera teknikoa lorpen handia izan zen arkitekturarako, ingeniaritzarako eta eraikuntza-enpresa guztietarako. Gehryren titaniozko kurbek eta haren dekonstruktibismoak garai bat markatu dute. Hala, marka-arkitektura oinarri hartuta garatu da Bilbo: Norman Foster Architects-en metroa, Santiago Calatravaren aireportua eta ibaiadar gaineko zubia, Arata Isozaki japoniarraren dorre bikiak Uribitarteko kaian, edo Iberdrola dorrea, hiriaren *skyline*aren jaun eta jabe, César Pelli argentinarraren eskutik. Horri Zorrozaurre urbanizatzeko plana gehitu behar zaio; ibaiadarrak inguratutako gune industrializatu horretan gure inguruko hirigintzako esku-hartzerik handiena egingo da.

Zorrozaurre azken pausoetako bat izango da, Bilbo azkenik ere zerbitzuen hiri izatera irits dadin, turismoari, aisiari eta kulturari begiratzen dion hiria izan dadin, industriari lotutako iragana atzean utzita. Arkitekturaren lorpen horiek guztiak arkitekto eta ingeniariek talde-lanean egin dituzte, eta kapital sinboliko handia dira Europako hiriburuen arteko egungo konpetentzian: hiriburuek arreta eta kapitala bereganatu gura dituzte. Argi dago laster ebatzi beharko dela ingeniaritzak eta konplexutasun teknikoak arkitektura konkistatuko ote duen aztertzen duen auzia: arkitektura edo ingeniaritza, zein dago zeinen mende? Edo behin betiko integratuko dira? Eztabaida horretan, kultura-ondarearen oinarriak zehazteko ordenaren birdefiniziorako bereizkuntza dago jokoan. Egun, ondorioa da arkitektura eta ingeniaritza elkarrekin doazela.

Une honetan, paradoxa bada ere, arkitekturarik gabeko arkitektura dagoela esan dezakegu, baina Arkitektura gisa aurkezten da (A larriz). Esaterako, Coll-Barreu estudioak (Bizkaian eta Madrilen ditu egoitzak) egindako Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren eraikina (Bilbo) kasu adierazgarria da: altzairuzko eta beirazko bolumen poliedriko ausartak azaleratzen dira fatxadan, eta kontraste handia egiten dute inguruarekin. Iraungo duen arkitektura bat da? Izan ere, *high tech*a erabat ezarrita dago jadanik gure herrietan eta hirietan. Guggenheim aurreko aroan abangoardia arkitektonikoaren onesgarritasunak hiria eraikitzeko logika modukoarekin talka egiten zuela gogoratzea besterik ez dago; patrimonialismo eta kontserbadurismo moduko bat bazen orduan, gutxietsi egin zituena arkitekto-asoziazioak Oteiza, Saénz de Oiza eta Fullaondoren Alhondigarako proiekturako. Porrot horrekin zuzenean lotuta agertu zen Guggenheim, eta bestelako arkitektura bat ere posible zelako kontzientzia zabaldu zuen. Ingeniaritzari loturiko arkitektura instalatu egin da. Horren erakusgarri dira Gasteizko Bárcena eta Zufiaur estudioa, Donostiako Isuuru (Lazkano eta Abadias) eta Bilboko GAZ.


11

**11.** Bilboko Metroa, Norman Foster Arquitects. Bilbo, 1996.
**12.** Bilboko aireportua, Santiago Calatrava. Loiu, 2000.
**13.** Iberdrola dorrea, César Pelli. Bilbo, 2012.






12

**11.** Métro de Bilbao, Norman Foster Arquitects. Bilbao (Biscaye), 1996.
**12.** Aéroport de Bilbao, Santiago Calatrava. Loiu (Biscaye), 2000.
**13.** Tour Iberdrola, César Pelli. Bilbao, 2012.

Le projet d'ACXT fut choisi parmi d'autres avant-projets signés par Norman Foster ou Santiago Calatrava, les deux avec un lien historique avec Bilbao. Le premier, célèbre auteur du métro de Bilbao, est revenu dans la ville pour rénover et agrandir le Musée des Beaux-Arts. Il s'agit d'ajouter un étage en saillie sur l'édifice néo-classique, qui fera du musée une attraction. De plus, l'alternative, citée plus haut, entre l'architecture proposée par une entreprise internationale et l'architecture locale se trouve ici synthétisée, puisque le studio Foster collabore avec l'architecte Luis María Uriarte de Laudio (Alava). « Je suis une partie minuscule d'une machinerie gigantesque », a-t'il déclaré pour résumer l'état actuel de la profession.

Ce n'est un secret pour personne : l'architecture a succombé au pouvoir des médias. Les bâtiments comme leurs architectes sont devenus des icônes d'une modernité dans laquelle le pouvoir de l'image peut transformer les catégories sur lesquelles se fondent certains des principes de la profession : fonctionnalité, pragmatisme, flexibilité, environnement et durabilité, concepts qui sont à la base de nombreux programmes. L'architecture basque contemporaine doit lutter et rivaliser avec la promesse de modernisation faite par les architectes iconiques (ou symboliques). À l'heure actuelle, il n'existe pas de complexe architectural conçu et construit par un studio de « jeunes » architectes qui puisse rivaliser avec la cote de popularité de l'architecture médiatique, c'est-à-dire une architecture utilisée comme capital symbolique destinée à remplir les publicités touristiques. Une exception, cependant : le succès du collectif VAUMM au cours de la dernière décennie (collectif composé par Marta Álvarez, Iñigo García Odiaga, Jon Muniategiandikoetxea, Javier Ubillos et Tomás Valenciano). Le Basque Culinary Center est composé d'une rampe qui entoure l'édifice et qui lui donne une forme hélicoïdale post-Frank Lloyd Wright, et a été un tournant pour le studio. VAUMM, d'autre part, a rénové le marché aux poissons de Saint-Sébastien et a mené quelques autres opérations qui l'a placé au premier plan de la récente rénovation de l'architecture basque.



13

Izar handien izenen atzean (Foster edo Calatrava, esaterako) bertako estudioak ere badaude; alegia, arkitektoak proiektua sinatzen du, baina bertako bulegoak dira proiektua egiteaz arduratzen direnak. GAZ Arquitectos bulegoko Aitor Gurtubayk hau esan du: «Proiektu-lehiaketak izan behar lukete, ez arkitekto-lehiaketak. Hala, hiriek eraikuntza handiak irabaziko lituzkete, eta ez izen handiak». GAZek egindako arkitekturaren adibide bat Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia da, Donostian. Honakoa adierazi du Gurtubayk: «Eraikuntza asko ez dira arkitektura; helbururik eta sentsibilitaterik gabe egiten dira, kontuan hartu ere egin gabe arkitekturan beharrezkoak diren gutxienekoak: inguruarekiko sentiberatasuna, ekonomia, edertasuna, proportzioa, eta abar». Arkitektura berri eta distiratsutik harago, baina, kontentzio-adibideak daude: proposamen xumeak, pragmatikoak eta sentsibilitatez beteak, paisaian gorputz arrotz legez barneratzen ez direnak; aldiz, truke-harremanak ezartzen dituzte inguruarekin, kulturarekin eta, sarri, landa-inguruarekin.

Gauza asko idatzi izan dira arkitekturan «erregionalismo kritikoa» deritzonaren teoriei buruz, Kenneth Frampton historiagilearen teoriaz geroztik. Framptonek auzitan jartzen du mugimendu modernoaren unibertsaltasun faltsua, geografiarekiko eta klimarekiko sentiberatasun handiagoaren mesedetan. Hau da, herri-ikurrak biltzen dituen arkitekturaren alde egiten da, modernitatea eta tradizioa, paisaia eta toposa (lekua) lotzen dituena; ez da erregionalismo identitario edo folkloriko baldarra bilatzen, baizik eta izenak berak dioen legez, erregionalismo batez ere «kritikoa».

Ibon Salaberriaren BeSte Arkitektura Agentzia Bat eta antzeko bulego txikiek egiten dituzten esku-hartzeetan, lehentasuna ematen zaie paisaiari eta formen eta materialen ekonomiari. Mungiako JAjaus etxearen abiapuntuan aldapan dagoen partzela batean etxebizitza konpaktu bat, baratzera sarbide zuzena duena, eraikitzeko beharra dago; gainera, negutegia du goiko aldean. Zatiak elkartzen edo mihiztatzen diren tokietan sistema industrializatuak eta artisau-soluzioak nahastuz fabrikatu da, gainera.

Gihar gehiegirik erakusten ez duen eta artifizio hutsaletan entretenitzen ez den adibide bat, ordenan eta testuinguruarekiko sentsibilitatean oinarritzen dena eta pausu bakoitzean lurraldea asmatzen duena, Leibar &

**14.** Osakidetzaren Bilboko egoitza, Coll-Barreu. Bilbo, 2008.
**15.** Musikene, GAZ Arkitektoak. Donostia, 2001.


14







15

**14.** Siège du Service de santé à Bilbao, Coll-Barreu. Bilbao (Biscaye), 2008.
**15.** Musikene, GAZ Arkitektoak. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 2001.

En son temps, le palais des congrès du Kursaal de Rafael Moneo fut un projet très contesté par les citoyens, et il est désormais une icône incontestée de Saint-Sébastien, qui pourrait illustrer une architecture iconique ou médiatique locale. Moneo est un architecte de renom, il a réalisé des édifices emblématiques dans d'autres pays, tel que le Moderna Museet de Stockholm. Une autre œuvre de Moneo est l'église de Iesu, située dans le quartier Riveras de Loiola de Saint-Sébastien. Il s'agit d'une œuvre minimaliste qui réassocie le mysticisme de la lumière et de la blancheur des murs à une simplicité formelle typiquement réductionniste. La base à la forme de croix brisée et son asymétrie veulent refléter les tensions mondiales. Le plafond crée un effet aérien, en reprenant l'asymétrie de la croix, donnant l'impression d'être suspendu en l'air. Cette église pourrait faire partie de notre patrimoine culturel comme la basilique d'Arantzazu ou l'église du couronnement de Miguel Fisac à Vitoria-Gasteiz (1960).

Cependant, en marge des constructions de valeur esthétique, l'architecture basque est conditionnée par la manière de faire la ville. Les possibilités techniques ouvertes avec le Musée Guggenheim de Bilbao ont représenté une grande réussite pour l'architecture, l'ingénierie et l'ensemble des entreprises de construction. Les courbes de titane de Gehry et son déconstructivisme ont marqué toute une époque. Ainsi, Bilbao s'est développé sur la base d'une architecture de marque : le métro de Norman Foster Architects, l'aéroport de Bilbao de Santiago Calatrava et le pont enjambant la ria, les tours jumelles du Japonais Arata Isozaki sur le quai d'Uribitarte, ou la tour Iberdrola, gratte-ciel qui domine l'horizon de la ville, de l'Argentin César Pelli. Il faut ajouter à cela le projet de réaménagement de Zorrozaurre, une aire industrialisée entourée par la ria, et qui fait l'objet d'une des interventions urbaines les plus importantes de nos contrées.

L'île de Zorrozaurre sera la dernière étape pour que Bilbao devienne définitivement ville de services, ouverte vers le tourisme, les loisirs et la



Seigneurin Architects estudioa da (Baiona eta Bordele). Itxura batean sinpleak dira euren konposizioak, baina sentikortasun handikoak dira, poetikoak, eta asko zaintzen dute baliabideen alderdi ekonomikoa. Xavier Leibarrek eta Jean-Marie Seigneurinek Ziburun ireki zuten lehenengo bulegoa, 1991n. Eta ordutik, modernitateari eta ondareari buruzko heziketaren balioak konbinatu dituzte. Bulego frantses-euskaldunaren arkitektura Iparralden eta Akitanian zabaltzen ari da eta, obrak egin diren lekuei arreta handia eginez, modu zainduan egiten dira eraikuntza dotore bezain apalak.

Inguruarekiko sentiberatasun handiagora egindako sartu-irtenak izan diren arren, nabarmentzekoa da ez gaudela espezifikoki euskal arkitektura gisa defini daitekeenaren unean: herrialde bakoitzean gailentzen diren estudioek nazioartean aipagarri den arkitektura egiten dute. Herri-arkitektura garaikidearen logika erronka bat da. Hala, Luis Peña Ganchegui erreferentzia saihestezin legez gailentzen da; hala ere, horrek ez du esan nahi arkitektoak ez zituenik egin estilo posmodernistako lan batzuk; esaterako, Amara Plaza Hotela, 1990eko hamarkadaren hasieran. Gaur-gaurkoz Peña Ganchegui eta Asoziatuak da arkitektoaren beraren ondorengoa, izen propioez harago gaur egungo aroa estudioena dela azpimarratzen duena. Hona hemen zenbait eraikin aipagarri: Donostiako San Telmo Museoa, Nieto y Sobejano Arquitectos Madrilgo estudioarena, eta Bilboko Euskalduna Jauregia, Federico Soriano eta Dolores Palacios arkitektoena (eraikin horrek industrializazio garaian toki horretan bertan zeuden ontziolei omenaldia egiten die, eta eraikinaren itsasontzi formak eta burdinezko itxurak kontraste handia egiteko «auzokide» duen Guggenheim museoaren titaniozko distirarekin).

Arkitekturaren sozializazioak eta bere problematikek gehiago erakarri dute interes publikoaren arreta azken urteotan. 1929an sortutako Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak erakunde bakar batean biltzen ditu

**16.** JAjaus, beSTe Arkitektura Agentzia Bat. Mungia, 2009.
**17.** Alturan, Leibar & Seigneurin. Donibane Lohizune, 2010.





**16.** JAjaus, BeSTe Arkitektura Agentzia Bat. Mungia (Biscaye), 2009.
**17.** Alturan, Leibar & Seigneurin. Donibane Lohizune/Saint-Jean-de-Luz (Labourd), 2010.

culture, laissant derrière elle son passé industriel. Tous ces résultats architecturaux sont le fruit d'un travail collaboratif entre architectes et ingénieurs, et représentent un capital symbolique considérable face à la concurrence actuelle entre villes européennes qui veulent s'approprier l'attention et les capitaux. La conquête de l'architecture par l'ingénierie et par la complexité technique devra bientôt se résoudre : l'architecture ou l'ingénierie, laquelle se soumet à l'autre ? Ou bien vont-elles s'unir définitivement ? Ce qui est en jeu dans ce débat, c'est une distinction qui redéfinit l'ordre à l'heure d'établir les bases du patrimoine culturel. Nous pouvons conclure aujourd'hui que l'architecture et l'ingénierie vont de pair.

Nous sommes dans une époque où existe une architecture sans architecture, mais qui est présenté comme Architecture (avec un A majuscule). Par exemple, le bâtiment du Département de la santé du Gouvernement basque, à Bilbao, faite par le studio Coll-Barreu (avec des bureaux en Biscaye et à Madrid) est un cas significatif en raison de l'audace des volumes d'acier et de verre polyédriques de la façade, contrastant fortement avec son environnement. Est-ce une architecture qui va durer ? Le high-tech s'est définitivement installé dans nos espaces urbains. Il suffit de se remémorer que dans l'ère d'avant Guggenheim, la permissivité de l'avant-garde architecturale se heurta à une certaine logique de construction de la ville ; il y avait alors une sorte de patrimonialisme et de conservatisme, qui conduisirent au rejet des associations d'architectes pour le projet d'Alhóndiga de Oteiza, Sáenz de Oiza et Fullaondo. Suite à cet échec le projet Guggenheim émergea, faisant prendre conscience qu'une autre architecture était possible. La nouvelle architecture associée à l'ingénierie s'installa. Des studios comme Bárcena et Zufiaur de Vitoria-Gasteiz, Isuuru de Saint-Sébastien (Lazkano et Abadias) et GAZ de Bilbao en sont un bon exemple.

Derrière de nombreux noms de grandes stars de l'architecture (Foster



lau lurraldeei dagozkien ordezkaritzak, eta, guztira EAEko eta Nafarroako 3.000 arkitekto dira elkargokide. Sortu berri den Euskadiko Arkitektura Institutua Donostiako Santa Teresa komentua zenaren eraikinean dago, eta arkitekturaren kultura egitearen eta zabaltzearen aldeko joera sustatzea du helburu. Harekin batera, *Mugak* Nazioarteko Arkitektura Bienala sortu zen; Donostian egin zen 2017an. Bertan, etxebizitzari, lurzoruari eta hiria eraikitzeari eta egiteari buruzko jarduera eta eztabaida ugari egin ziren.

Halaber, hainbat ekintza eta topaketa antolatu dituzte arkitekturari lotutako kolektibo eta elkarteek XXI. mendearen hasieratik. Besteak beste, hauek dira aipatzekoak: 2010eko udan M-Etxeak Pasaian antolatutako *Arkitektura Kolektiboak* topaketa; plataforma berriak, besteren artean, Lur Paisajistak, Hiria Kolektiboa eta Hackitektura eta, azkenik, Atari elkartea. Horiek guztiak arkitekturaren kultura eztabaidaren eta elkartrukearen bitartez sozializatzeko helburua duten elkarteak dira. Hain zuzen, denek aldarrikatzen dute lanbideari ez zaiola hain ikuspegi sakratutik erreparatu behar, eta arkitekturak gizarte-arazoekin konprometituago egon behar duela; esaterako, lurzoruaren prezioarekin, ekonomiaren prekarietatearekin eta ingurumen-arazoekin.

Era berean, hiriari eta arkitekturari berari genero-ikuspegi zabalagotik erreparatzen zaio orain, historikoki ikuspegi maskulinoa izan baita nagusi sektore honetan. Horretarako, hiria eraikitzeko parametro patriarkalak erabiltzea auzitan jartzen duten ekintzak eta jardunbideak sustatu dira, modu horretan arkitektura feminista ere sustatzeko. Ildo horretan, bereziki aipagarria da emakumeak 1967an batu zirela elkargora lehen aldiz Euskal Herrian, eta ez dugu ahaztu behar elkargora batzea ezinbestekoa dela Estatuan eraiki ahal izateko.

Elkarlanean eta lankidetzan oinarrituta dago arkitektura-estudioek sustatzen duten kolektibotasuna. Zentzu horretan, arkitekturari buruzko politikak mahai gainean jarri eta eztabaidatzea dira hirigintzak eta eraikitako inguruek dituzten arazorik premiazkoenak; izan ere, hausnarketa hori ezinbestekoa da hirigintzaren etikaren oinarrian espekulazioa eta espek-

**18.** Ozeanoaren Hiria, Steven Holl eta Leibar & Seigneurin. Biarritz, 2011.




18

**18.** La Cité de l'Océan, Steven Holl et Leibar & Seigneurin. Biarritz (Labourd), 2011.



ou Calatrava) se trouvent des studios locaux : l'architecte signe le projet mais ce sont les studios locaux qui se chargent de la réalisation. Aitor Gurtubay du studio GAZ Arquitectos a dit : « Ce devrait être des concours de projet, pas des concours d'architectes. Ainsi, les villes gagneraient de grandes constructions, et non de grands noms ». Un exemple d'architecture réalisée par GAZ est le Centre supérieur de Musique du Pays Basque, Musikene, à Saint-Sébastien. Gurtubay dit : « Bon nombre de constructions ne relève pas de l'architecture ; elles sont réalisées sans aucune sensibilité ni intention, sans tenir compte du strict minimum nécessaire en architecture : la sensibilité à l'environnement, l'économie, la beauté, les proportions, etc ». Au-delà de l'éclat de la nouvelle architecture, il y a des exemples d'endiguement : des propositions simples, pragmatiques et pleines de sensibilité, qui ne s'insèrent pas dans le paysage comme des corps étrangers, mais qui établissent une relation d'échange avec l'environnement, la culture et, souvent, avec le rural.

Après la théorie de l'historien Kenneth Frampton, on a beaucoup écrit sur les théories du « régionalisme critique » en architecture. Frampton en viendrait à remettre en question la fausse universalité du mouvement moderne au nom d'une plus grande sensibilité géographique et climatique. Une architecture qui réunit des signes vernaculaires, liant la modernité à la tradition, le paysage au *topos* (lieu) ; il ne s'agit pas d'un régionalisme identitaire ou folklorique maladroit, mais comme son nom l'indique, un régionalisme qui est avant tout « critique ».

De petites agences comme BeSte Arkitektura Agentzia Bat d'Ibon Salaberria se sont engagés dans des opérations où le paysage et l'économie des formes et des matériaux est prioritaire. Le point de départ de la maison JAjaus de Mungia (Biscaye) est le projet d'un logement compact sur un terrain en pente, avec un accès direct sur le potager, et avec une serre sur la partie supérieure. De plus, elle a été fabriquée à partir de la combinaison de systèmes industrialisés et de solutions artisanales, à l'endroit où les pièces s'assemblent.

Le studio Leibar & Seigneurin Architects (Bayonne et Bordeaux) est un bon exemple d'une architecture qui ne tente pas d'épater la galerie ou ne se perd pas dans de vains artifices, mais qui s'ancre dans l'ordre et la sensibilité du contexte, et qui invente le territoire pas à pas. Sous une apparente simplicité, leurs compositions sont d'une grande sensibilité et de poésie, et portent une attention particulière au côté économique des ressources. Xavier Leibar et Jean-Marie Seigneurin ouvrirent leur première agence à Ziburu (Labourd) en 1991, et depuis, ils ont associé les valeurs d'une éducation sur la modernité et le patrimoine. L'agence basco-française d'architecture s'étend sur le territoire du Pays basque nord et de la Nouvelle Aquitaine, et porte une attention particulière aux lieux où s'établissent les constructions, qui sont sobres et élégantes.

Malgré des incursions d'une plus grande sensibilité envers l'environnement, il est à souligner que nous ne sommes pas à un moment où nous pouvons parler d'architecture spécifiquement basque : dans chaque territoire il y a des studios qui construisent une architecture de renommée internationale. La logique d'une architecture vernaculaire et contemporaine est un vrai enjeu. En ce sens, Luis Peña Ganchegui se démarque comme référence incontournable, ce qui ne signifie pas que l'architecte n'a pas réalisé quelques œuvres de style postmoderne telles que l'hôtel Amara Plaza, au début des années 1990. Actuellement, Peña Ganchegui et Associés succède à l'architecte lui-même, mettant ainsi en évidence que l'époque actuelle est celle des studios. Parmi les constructions remarquables, citons le musée San Telmo




takularitatea oso presente dauden garai honetan. Halaber, Arkitekturako Fakultatea Donostian egoteak eta irakasleak berritu izanak mesede egin dio sinergiak eta eztabaidaren aldeko giroa sortzeari. Horregatik guztiagatik, ez da kasualitatea Donostia aukeratu izana Euskadiko Arkitektura Institutuaren eta *Mugak* bienalaren egoitza izateko. Are gehiago, azken hori egonkortzen doala dirudi.

**19.** Euskalduna Jauregia, Dolores Palacios eta Federico Soriano. Bilbo, 1999.





**19.** Palais Euskalduna, Dolores Palacios et Federico Soriano. Bilbao (Biscaye), 1999.

de Saint-Sébastien du studio madrilène Nieto et Sobejano Arquitectos, ou encore le palais Euskalduna de Bilbao, des architectes Federico Soriano et Dolores Palacios, un bâtiment qui rend hommage aux chantiers navals qui s'y trouvaient durant l'industrialisation et dont l'allure, en forme de bateau, et le fer contrastent avec l'éclat du titane de son voisin Guggenheim.

La socialisation de l'architecture et ses problématiques ont vu augmenter l'intérêt du public ces derniers années. Né en 1929, la Société officielle des architectes basques réunit en une seule institution les délégations correspondant aux quatre territoires du Pays basque du sud et regroupe plus de 3 000 architectes de la Communauté autonome basque et de Navarre. L'Institut d'architecture d'Euskadi nouvellement créé dans l'ancien couvent de Santa Teresa à Saint-Sébastien a pour but de promouvoir l'activité et la diffusion d'une culture de l'architecture. À ses côtés fut créée en 2017 la Biennale internationale d'architecture *Mugak*, à Saint-Sébastien, où ont lieu un grand nombre d'activités et de débats autour du logement, le sol et les modes actuels de construire et de faire la ville.

Depuis le début du XXIe siècle des collectifs et des associations en lien avec l'architecture ont également organisé de nombreuses activités et de rencontres. Il faut notamment citer les rencontres Architectures collectives organisées par M-Etxea à Pasaia (Guipuscoa) au cours de l'été 2010, et de nouvelles plateformes telles que Lur Paisajistak, Hiria Kolektiboa, Hackitektura et l'association Atari. Toutes sont des associations vouées à populariser une culture de l'architecture à travers le débat et l'échange. Toutes proclament que la profession ne doit pas être appréhendée d'un point de vue trop sacré et qu'elle doit être plus engagée envers les problématiques sociales telles que le prix des terrains, la précarité économique et les problèmes environnementaux.

De même, les perspectives de genre sur la ville et sur le métier d'architecte lui-même, historiquement déterminé à partir d'une perspective masculine, se sont élargies à travers des activités et des pratiques qui mettent en question la construction de la ville par le biais de paramètres patriarcaux, pour ainsi favoriser une architecture féminine. Il faut rappeler que la première association de femmes architectes au Pays basque remonte à 1967, et qu'il est obligatoire de s'associer entre plusieurs architectes pour pouvoir construire en Espagne.

La collectivité préconisée maitnenant par les studios d'architectes est associative et collaborative. Dans ce sens, les problèmes les plus urgents liés à l'urbanisme et à l'environnement bâti demeurent dans le débat de la politique sur l'architecture ; en effet, c'est une réflexion fondamentale à une époque où la spéculation et le spectaculaire foisonnent aux dépens de l'éthique urbaine. De même, la présence de la faculté d'architecture à Saint-Sébastien et le renouvellement du corps enseignant ont permis la création de synergies et l'instauration d'un climat propice au débat. Ce n'est pas un hasard si cette ville a été choisie comme siège pour l'Institut basque d'architecture et de la Biennale de *Mugak*. De plus, il semblerait que ce dernier soit en train de se stabiliser.

# DISEINUA

# DESIGN



20

# Diseinu industrialaren hastapenak eta aitzindariak

**20.** M-5 grapagailua, El Casco. Eibar, 1932.
**21.** Orbea bizikleta, Orbea & Cia. Eibar, 1930-1940.

Euskal diseinu industrialaren hastapenak artisautza tradizionalean daude: kutxetan, kaikuetan, zesta-puntako xisteretan eta abar. Artisautza-produktu horiek guztiak gure kulturaren adierazpen material gisa aztertu izan dira. Izan ere, XX. mendean bizitako etengabeko industrializazioak lanbide berria ekarri zuen berekin: diseinatzaile industriala. Hala ere, Euskal Herriko diseinuaren historia gaztea da oraindik ere. Hain zuzen, paraleloan joan dira diseinuaren garapena eta ekoizpena. Diseinua jarduera esplizitu gisa zedarritzea, ordea, hamarkada askotako lana izan zen. 1970eko hamarkada bukaeran hasi zen diseinu industriala indartzen. Alabaina, diseinuaren muina gerora seriean ekoiztuko zen objektu bat teknikoki proiektatzea dela uste badugu, orduan bai, diseinua lehenagotik existitzen da. Testuinguru horretan, ekoizpen-prozeduraren barruan lauso samar egotetik aintzatespen eta espezializazio handiagoa izatera pasa ziren diseinatzailearen garapena eta definizioa. Lehenago, proiektua produktuaren soluzio teknikoei baino ez zegoen lotuta, eta proiektuak egiteko teknikariak beste ardura batzuk ere bazituen enpresan.

Euskal industria makina-erremintaren esparruan gailendu izan da: etxetresna elektrikoak, autoak, bulegorako materiala eta, oraintsu, altzarigintza. Trenei dagokienez, Talgoa mugarri berezia izan zen gurean, Beasaingo CAFek diseinatu baitzuen. Beste enpresa batzuk ere (Fagor, Jata, Edesa, Otsein, Alfa, Irizar eta Orbea) aitzindari izan dira, gradualki aplikatu baitute diseinua euren produkzio-sistemetan.





# Origines et pionniers du design industriel

**20.** L'agrafeuse M-5, El Casco. Eibar (Guipuscoa), 1932.
**21.** Le vélo Orbea, Orbea & Cie. Eibar, 1930-1940.

Le design industriel basque a ses origines dans l'artisanat traditionnel : les coffres *(kutxa)*, le *kaiku*, la *xixtera* de la cesta punta... Tous ces objets artisanaux ont été étudiés comme l'expression matérielle de la culture basque. En effet, au XXe siècle l'industrialisation continue déboucha sur la profession de designer industriel. Cependant, l'histoire du design au Pays basque est encore jeune. L'évolution du design est parallèle à la fabrication de produits. Malgré cela, il a fallu des décennies pour établir le design comme activité à part entière. C'est à partir de la fin des années 1970 que le design industriel se mit à avoir du poids. Mais, si nous considérons le fait de projeter techniquement un objet qui sera ensuite produit en masse comme l'essence du design, alors le design existe depuis plus longtemps. Dans ce contexte, l'évolution et la définition du designer, qui étaient jusqu'alors indéterminées au sein du processus de production, connurent une plus grande reconnaissance et spécialisation. Auparavant, le projet était exclusivement lié aux solutions techniques du produit et le technicien qui construisait les projets était en charge d'autres tâches au sein de l'entreprise.

L'industrie basque a réussi dans le domaine des machines-outils, des appareils électroménagers, de l'automobile, des fournitures de bureau et, plus récemment, dans le secteur mobilier. Le domaine du chemin de fer au Pays basque connu un tournant avec le Talgo qui fut dessiné par l'entreprise CAF à Beasain (Guipuscoa). D'autres entreprises telles que Fagor, Jata, Edesa, Otsein, Alfa, Irizar et Orbea ont également été pionnières puisqu'elles ont appliqué progressivement le design dans leur système de production.



21

Diseinuaren esku-hartzea ezinbesteko zuen ekoizpena finkatu zedin, bi faktore erabakigarri izan ziren gurean: batetik, XX. mendearen hasieran Eibarren armak ekoizteari utzi eta beste produktu batzuk ekoizten hastea –besteak beste, bizikletak eta motozikletak (Mobylette eta Lambretta)– eta, bestetik, makina-erreminta. 1950eko hamarkadan bihurtu zen hiri armagilea diseinatutako kontsumo-produktuetarako industria-gune egoki.

Diseinatzailearen figura, baina, aitzindari gailenetako bati dago loturik: Néstor Basterretxea artista polifazetikoari, hain zuzen. Zalantzarik gabe, XX. mendeko euskal abangoardia artistikoaren artista esanguratsuenetako bat da; margolaria, eskultorea, zinegilea eta diseinatzailea ere izan zen. Bada, Basterretxeak esperimentazio-gune bilakatu zituen beharrizana eta bere etengabeko jakin-mina. Madriletik Euskal Herrira itzuli zen 1960eko hamarkadan Jorge Oteiza lagunarekin. Zehazki, Irunera joan ziren bizitzera, mugatik oso gertu, arkitekto biek Luis Vallet arkitektoaren laguntzaz diseinatu zuten etxe arrazionalistara. Basterretxeak diseinu modernoan jarri zuen arreta, hain zuzen ere, altzarigintzan; ordura arte ez zen halakorik inguruan, eta bezeroek atzerriko edo Espainiako banatzaileengana jo behar izaten zuten aulki edo mahai modernoak erosteko. Orduantxe lortu zuen arrakasta hoditeria kromatuzko altzarigintza-diseinuak, Bauhausean hain arrunta zena (Marcel Breuer estiloa), Knoll multinazionala mundu osoan hasi baitzen horiek saltzen.

Orduan sortu zuen Basterretxeak Irunen Biok altzari modernoen enpresa, eta, ia aldi berean, Espiral denda-sarea. 1966an, zur kurbatuz egindako *Gurpilla* aulkia atera zuen merkatura Biok enpresak. Bi enpresok izandako bultzada ageri-agerikoa da nazioarteko azoketan izan zirelako, baina, horrez gain, Espainiako merkatuan ere presentzia nabarmena izan zuten. Denborak aurrera egin ahala, Basterretxeak Bioken zuen diseinatzaile-figura lausotuz joan zen, eta, azkenik, alde egin zuen enpresatik. Erretreta hura bat etorri zen diseinatzailearen figurak euskal industriaren alorrean izan zuen hazkundearekin.

Basterretxeak artetik ekin zion diseinuari, eta, aldi berean, beste diseinatzaile batzuk indarrez sartu ziren euskal enpresetan. Horren adibide dira Londresen ikasitako Guillermo Capdevilla txiletarra, zeinak Ulm-eko eskolako manu estetikoei jarraitzen zien, eta Txema García Amiano gipuzkoar ekintzailea. Azken hori batez ere diseinu grafikora dedikatzen den TGA enpresako burua da gaur egun. García Amiano beste pilare historikoetako bat da, hainbat jarduera egin izan dituelako diseinuaren arloan, berrasmatzea eta bilakaera oinarritzat hartuta, aukera berriak sortzeko.

**22.** Biok, Néstor Basterretxea artista bazkide-sortzaile izandako altzari-enpresak fabrikatutako mahai osagarria. Biok-Espiral, 1964.





**22.** Accessoire de table. Fabriqué par l'entreprise Biok, fondée par l'artiste Néstor Basterretxea. Biok-Espiral, 1964.

Le fait de passer, au début du XXe siècle, de la fabrication d'armes à Eibar (Guipuscoa) à la fabrication d'autres produits tels que les vélos, les motos (Mobylette et Lambretta) et les machines-outils, a été déterminant dans la stabilisation d'une production où le design prenait part. C'est dans les années 1950 que la cité des armes à feu devint un épicentre industriel approprié pour les produits de consommation designs.

Cependant, la figure du designer eut avec l'artiste éclectique Néstor Basterretxea l'un des pionniers les plus notables. Il est sans aucun doute l'un des artistes les plus significatifs de l'avant-garde artistique basque du XXe siècle : il était peintre, sculpteur, cinéaste et également designer. Basterretxea a fait de la nécessité et de sa constante curiosité un champ d'expérimentation. À son retour de Madrid au début des années 1960, avec son ami Jorge Oteiza, tous deux s'installèrent à Irun (Guipuscoa), très près de la frontière, dans une maison de style rationaliste conçue par eux, en collaboration avec l'architecte Luis Vallet. Basterretxea porta son attention au design moderne, au mobilier plus précisément, qui n'existait pratiquement pas au Pays basque, et les clients devaient se tourner vers les distributeurs étrangers ou espagnols pour acheter des chaises et des tables modernes. C'est alors que le design mobilier en tuyauterie chromée connu son essor, typique du Bauhaus (style Marcel Breuer), car la multinationale Knoll se mit à en vendre partout dans le monde.

C'est alors que Basterretxea fonda la société de meubles modernes Biok à Irun, et presque simultanément la chaîne de magasins Espiral. En 1966, Biok lança la chaise *Gurpilla* à base de bois cintré. L'élan des deux sociétés se manifesta dans les salons internationaux et acquit également une place notable sur le marché espagnol. Au fil du temps, la figure de Basterretxea comme designer au sein de Biok perdit de son importance, et finalement il quitta l'entreprise. Ce départ coïncida avec le développement de la figure du designer au sein du domaine industriel basque.

Alors que Basterretxea opérait un changement de l'art vers le design, de nouveaux designers entrèrent en force dans les entreprises basques. Ainsi, Guillermo Capdevilla, Chilien formé à Londres (et adepte des préceptes esthétiques de l'école de design d'Ulm ) et le Gipuscoan et entrepreneur Txema García Amiano qui est aujourd'hui à la tête de TGA, une entreprise qui se dédie avant tout à la conception graphique. García Amiano est un autre pilier historique de par les multiples activités qu'il mène autour du design, se réinventant et évoluant sans cesse, et créant de nouvelles possibilités.



22

# Diseinua gaur egun

Diseinuaren sozializazioan aitzindari izan zen agentzietako bat Bilboko DZ Diseinu Zentroa izan zen. 1985ean sortu zuten, diseinatzeko ehunaren eta kulturaren gabeziari erantzuteko. Capdevillak aholkulari-lanak egin zituen agentzia horretan. Zentroa 1990eko hamarkadatik duela gutxi izan duen birmoldaketara arte izan da martxan. Garrantzi handiko zentroa izan da beti Euskal Herrian diseinu-kulturaren garapenerako. Bertan antolatu izan dira diseinu industrialaren joerei buruzko jardunaldiak, tailerrak eta erakusketak. Erakusketen artean ditugu, adibidez, Philip Starck diseinatzaile frantsesaren omenez egindakoa, 1998an antolatu zena, *Vanity Case by Starck* izenburupean; eta Vitra Design Museumeko Bilduma erakutsi zuena, 1999an, *Cien años, cien sillas* izenekoa. Biak ere Bilboko Rekalde aretoan izan ziren. Zentroaren egitasmoen artean, bereziki aipagarria da *Diseinuz*, diseinuari buruzko lehen aldizkaria (eta bakarra). 1990eko hamarkada oso interesgarria izan zen Bilbon: adibidez, diseinu grafiko aplikatua erabili zuen Fosterrek diseinatutako Bilboko metroan Ulmeko eskolako sortzaileetako batek, Otl Aicher alemaniarrak.

Diseinuak orotariko ekonomia- eta enpresa-estamentuekin dituen hartu-eman bereizezinen sintoma da gerora jazotako DZ Diseinu Zentroaren birmoldaketa. Izan ere, ia hogei urtez diseinua sustatzen eta bultzatzen igaro ondoren, enpresen beharrizanei erantzuteko ekin zion birmoldaketari DZ Diseinu Zentroak. Enpresa enplegatzailea, hau da, industria, bihurtu zen diseinuaren eta diseinatzaileen ardatza, eta ez alderantziz. Hala, DZ Diseinu Zentroa Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko erakunde izatera pasa zen: BAI Berrikuntza Agentzia. Ondoren, BEAZ Europako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin fusionatu, eta gaur egungo BEAZ Bizkaia sortu zen. BEAZ Bizkaia administrazio publikoaren mendeko erakundea da, bestelako berrikuntza- eta garapen-tresnez gainera, diseinuan ere laguntzen duena.

Paradoxikoki, erakundeak eragin duala du. Alde batetik, diseinua bultzatu eta babestu egiten duten hainbat indar ekonomikok inguratzen dute orain; hau da, industrializazioaren bitartez sozializatzen da. Alabaina, aldi berean, are gehiago aldentzen da kulturaren esparrutik, hau da, diseinuak kapital sinboliko, kognitibo eta estetiko gisa duen baliotik.

Badirudi hori gaur egungo egoeraren sintoma dela diseinuaren esparruan. Izan ere, sorkuntza- eta esperimentazio-osagaiak industrializazioarekin lotzean, eta Italian edo Herbehereetan dagoen gisako diseinuaren kulturaren faltan, gurean bigarrenaren aldeko apustua egin da kasurik gehienetan. Horrela, diseinuaren modalitate guztiekin lotutako diskurtso sendoa edo teoria kritikoa falta izatea ageri-ageriko sintoma da, diseinatzaileek eurek ere onartzen dutena. Luzaroan gordeta egondako arazoa da. Produktuak saltzeko unean enpresa-esparruan diseinu-kulturarik ez egotea oztopoa da, eta erronka nabarmena da hori diseinatzaileentzat, zeren harrapaturik baitaude euren ideia andanaren iturriaren eta bezeroek nahiz mandatariek ezarritako muga estuen artean.

Bada, BEAZ plataformak enpresen eta sorkuntza-kapitalen artean berrikuntza eta harremanak sustatzen dituenez gero, diseinu-espezialitatea bera lausoturik geratzen da. DZ Diseinu Zentroaren kasuan, ostera, ez zen hala gertatzen: bizirik iraunarazten zuen. Diseinuaren kultura sustatzea herritarrei bizi-baldintzak hobetu beharraren gaineko kontzientzia piztea

**23.** Bilboko metroaren marka, Otl Aicherrek diseinatua eta Michael Weiss-ek eta Hans Brucklacher-ek garatua. Bilbo, 1995.
**24.** Bilboko Metroa.



23



24

# Le design aujourd'hui

**23.** Marque du métro de Bilbao, dessiné par Otl Aicher et développé par Michael Weiss et Hans Brucklacher. Bilbao (Biscaye), 1995.
**24.** Métro de Bilbao.

L'une des agences pionnières dans la popularisation du design a été DZ Diseinu Zentroa à Bilbao. Elle fut fondée en 1985 pour répondre au manque de tissu et de culture du design, et Capdevilla y était consultant. Ce centre a fonctionné depuis les années 1990 jusqu'à sa récente reconversion. Il a toujours été d'une importance majeure pour le développement de la culture du design au Pays basque. On y a organisé des séminaires, des ateliers et des expositions sur le développement des nouvelles tendances du design industriel, comme l'exposition en 1998 dédiée au designer français Philip Starck, sous le titre de *Vanity Case by Starck*, ainsi que l'exposition *Cent ans, Cent Chaises*, qui présenta la collection du Vitra Design Museum en 1999, toutes deux dans la salle Rekalde de Bilbao. Parmi ses initiatives il faut notamment évoquer *Diseinuz*, la première et la seule revue de design basque. Bilbao vécut une décennie vraiment intéressante dans les années 1990. Par exemple, l'Allemand Otl Aicher, l'un des fondateurs de l'école d'Ulm, inclut le design graphique appliqué dans le nouveau métro de Bilbao dessiné par Foster.

La reconversion DZ Diseinu Zentroa qui en a résulté permet d'entrevoir les relations inhérentes établies avec différents secteurs économiques et commerciales. Après une vingtaine d'années à promouvoir la culture du design, DZ Diseinu Zentroa a dû faire face à une restructuration pour pouvoir répondre aux besoins des entreprises. Le secteur des entreprises qui emploient, c'est-à-dire le secteur industriel, est devenu l'axe sur lequel le design et les designers ont évolué, et non l'inverse. Ainsi, DZ est devenu BAI Berrikuntza Agentzia (Agence pour l'innovation), organisation qui dépend de la Députation forale de Biscaye, et qui, plus tard, lors de la fusion de BAI avec BEAZ Centre européen pour les entreprises et l'innovation, devint l'actuel BEAZ Biscaye, organisation qui dépend de l'administration publique qui établit le design parmi d'autres outils d'innovation et de développement.



da, egunerokotasunaren oinarri materialetatik hasita. Edozein kasutan, BEAZ diseinuaren sustapen-sare global batean dago sartuta, eta International Council of Societies of Industrial Design edo Diseinu Industrialeko Sozietateen Nazioarteko Kontseiluaren eskubide osoko kide da.

Hezkuntzari dagokionez, Bilboko Kunsthal diseinu-eskola da diseinuaren habeetako bat gaur egun. Arte plastikoak, diseinu grafikoa, tipografia, publizitatea, marketina eta beste modalitate batzuetako arloak konbinatzen dituen eskola teknikoa da. Alabaina, Bartzelona da edozein diseinatzaile grafiko edo industrialen hezkuntzarako hurbilen dugun hiria. Hori da diseinatzaile askok egiten duten ibilbidea. Diseinu industriala produktuen diseinua sakonen errotutako esparrua bada; hain zuzen, horixe sustatu du Kataluniaren ekonomia-indarrak berak, industria izan baitu funtsezko habeetako bat. Are gehiago, esan daiteke Estatuan Katalunian baino ez dagoela benetako diseinuaren kultura.

Erronka handia izan da sarritan diseinatzaileentzat diseinuaren kultura zabaltzea. Duela gutxira arte, diseinua eta dekorazioa gauza bera ez zirela jakinarazteko borrokan aritu dira diseinatzaileak, eta, gainera, mantendu egin dute enpresariek produktuak behar baino gehiago garestitzearen aurkako borroka. Hala ere, diseinuaren definizio ontologikoari dagokionez, diseinua formaren iraunkortasun-, funtzionalitate-, praktikotasun- eta ekologia-ezaugarria da beti. Diseinu onak produktuaren iraunkortasuna bilatzen du, baita zaharkitzearen kontra borrokatzea ere. Oro har, gure testuinguruan, artearen eta diseinuaren arteko harremana lausotu egiten dute nolabait modernitatearen nostalgiak eta haren erreferentziarik hurbilenekoek (Bauhausek eta De Stijlek, esaterako). Identifikazio horren oinarrian formalismo jakin bat dago; hain zuzen ere, «ondo diseinaturiko objektuek» eta euskal eskulturari buruzko hainbat topikok (etxekoak izateak, gustu onekoak, funtzionalitatea dutenak) ezaugarritzen dutena.

EIDEri (Euskadiko Diseinatzaile Elkartea) dagokio diseinuan erreferente izatea. Hainbat esparrutan jarduten dute, ekitaldien antolakuntzatik hasi eta diseinua balio estrategiko gisa sozializatzeko enpresei aholkularitza-zerbitzua ematera arte. Elkarteko presidente Ignacio Solak halaxe erantzun

**25.** Kunsthal diseinu-eskola, Bilbo.
**26.** Kunsthal diseinu-eskola, Bilbo.

**25.** École de design Kunsthal, Bilbao (Biscaye).
**26.** École de design Kunsthal, Bilbao.



Paradoxalement, l'effet obtenu est double. D'une part, le design est maintenant encadré par de nombreuses forces économiques qui le soutiennent et le promeuvent, c'est-à-dire qu'il est popularisé à travers l'industrialisation. Et en même temps, il s'éloigne davantage du champ culturel, du design en tant que capital symbolique, cognitif et esthétique.

Il semblerait qu'il s'agisse d'un symptôme du design dans la conjoncture actuelle : en effet, en l'absence d'une culture du design comme on peut la trouver dans des pays comme l'Italie et les Pays-Bas quand il s'agit de relier l'élément créatif et expérimental à son industrialisation, le design basque, dans la plupart des cas, a opté pour la seconde option : l'industrialisation. Ainsi, l'absence d'un discours fort ou d'une théorie critique associée au design dans toutes ses modalités, est un symptôme évident, et assumé par les concepteurs eux-mêmes. C'est un problème latent depuis longtemps, car le manque de culture du design dans le domaine entrepreneurial à l'heure de vendre les produits est un frein considérable pour les concepteurs, qui sont pris entre le foisonnement de leurs idées et les limites étroites imposées par les clients et les commissionnaires.

Bien que BEAZ soit une plateforme qui stimule l'innovation et les relations entre les entreprises et le capital créatif, la spécificité du design lui-même est incertain. Ce qui n'était pas le cas avec DZ Diseinu Zentroa qui le maintenait vivant. En ce sens, favoriser une culture du design équivaut à cultiver chez les citoyens la nécessité d'améliorer des conditions de vie, à commencer par la base matérielle du quotidien. Quoiqu'il en soit, BEAZ fait partie intégrante d'un réseau mondial de promotion du design, à travers l'International Council of Societies of International Design, dont il est membre de plein droit.

Concernant l'éducation, l'école de design Kunsthal de Bilbao est actuellement un des piliers du design. C'est une école technique où sont enseignés les arts plastiques, la conception graphique, la typographie, la publicité, le marketing et d'autres cursus. Cependant, c'est Barcelone qui est la ville la plus proche pour se former en conception graphique et industriel, et c'est la voie que la plupart des designers choisissent. C'est le design industriel ou la conception de produits



zuen diseinu industrialaren onarpen ezaren mamia zein ote den galdetu ziotenean: «Kultura-arazoa da. Beste herrialde batzuetan –Italian, esaterako–, ez zuten gaiari buruzko ikasketarik; bai, ordea tradizioa. Alemanian eta herrialde eskandinaviarretan, ostera, biak dituzte. Hortaz, lan egin behar da aintzat hartua izan dadin. Horregatik egiten ditu EIDEk gisa horretako topaketak, eta horregatik jartzen du arreta beste herrialde batzuetan; kontzientzia piztea da helburua. Gurean hasi gara sentiberatasun hori izaten, martxan da hazitegia».

EIDEren afiliatuen artean aurki daitezke diseinatzaile industrial aktiboenetako batzuk. Igor eta Asier Esnalek 1995ean sortu zuten Dhemen, Gipuzkoako kostaldeko Orio udalerrian. Gaur egun, berrikuntza-adibide da diseinu industrialaren arloan. Dhemen enpresako kideentzat, diseinua irudiaren planoan hasi eta objektu bukatuan amaitzen den erronka integrala da, eta bizikleta nahiz yate baten diseinu-prototipo izan daiteke. Haien helburuetako bat beren produktuak etengabe hobetzea da, eta horretarako kontratatzen dituzte ingeniari eta diseinatzaileak. Dhemenek aukera sorta zabala ematen die enpresa askori, eta ez da objektu edo produktu zehatzak egitera mugatzen.

